

# Hondarribia, gizarte-irudikapena eta baxurako arrantzan emandako aldaketak

(Hondarribia, social representation and change in coastal fishing)

Anduaga Matud, Jaime

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.  
20007 Donostia

BIBLID [1137-439X (2007), 29; 81-98]

Jaso: 05.11.08  
Onartu: 06.10.19

---

*Denboraldi ez-egonkorrean ematen diren aldaketa kontrolatuei nahiz ez-desiratuei aurre egitean gizarte-elkarrekintza berriak sortzen dira. Hemen planteatzen da edozein errealitate soziala irudikapenez jantzita dagoela. Hori aplikatuta baxurako arrantzale kolektiboan, kontraesanez betetako egoeratik onean ateratzeko Europatik datozen mezuak eta lekuko ondare kulturalaren arteko orekari eustea da daukan erronkarik handiena, baldin eta dagokion errealitatearen irudikapenean oinarritutako nortasuna iraun dadin nahi badu.*

*Giltza-Hitzak. Irudikapena. Sinbolo sistema. Gizarte aktore kolektiboa. Europa Batasuna.*

*Nuevas interacciones sociales nacen al hacer frente a los cambios no deseados en una situación inestable. Se plantea aquí que cualquier realidad social se encuentra revestida de representación. Aplicando lo anterior al colectivo de pescadores de bajura, el mayor reto que éste afronta para salir con bien de una situación llena de contradicciones es el de mantener el equilibrio entre los mensajes que llegan de Europa y el patrimonio cultural local, si queremos que perviva una personalidad basada en la representación de la realidad correspondiente.*

*Palabras Clave: Representación. Sistema de símbolos. Actor social colectivo. Unión Europea.*

*De nouvelles interactions sociales apparaissent lorsque l'on fait face aux changements non désirés dans une situation instable. Il apparaît ici que toute réalité sociale se trouve revêtue de représentation. En appliquant ce qui précède au collectif des pêcheurs côtiers, son plus grand défi pour sortir avantageusement d'une situation pleine de contradictions c'est de maintenir l'équilibre entre les messages qui arrivent d'Europe et le patrimoine culturel local, si nous voulons que survive une personnalité basée sur la représentation de la réalité correspondante.*

*Mots Clés: Représentation. Système de symboles. Acteur social collectif. Union Européenne.*

## HITZAURREA

Arrantza jardueraren inguruan garatzen diren kolektiboek beren ezaugarri espezifikoak badituzte ere, testuinguru sozialean inoiz ez dira isolatuak izan, egon ohi dira beste espazio sozial zabalagoan murgildurik eta zirkunstantzia horrek benetako erronka suposatu du Itsas Antropologian mugitzen garen orrentzat, horren alde soziala eta dagozkion elkarrekintzak (endo-endo /endo-exo) aintzat hartu behar genituen heinean.

Akaso horregatik sortu ziren diziplina honetan hainbeste adar: turismoa, inmigrazioa, ekologia, zerbitzuak, identitatea, merkataritza, sinbolismoa, urbanizazio prozesua, arrantza, eta abar luze batekin zer ikusi sakona zeukatenak.

Ororen gainera garbi agertzen dena da arrantza-jarduera ekonomikoa garatzen den nonahi kolektibo kulturala sortu dela, benetako lan-kultura osatuz, eta hor finkatu ohi dugu gure baliabide akademikoak, inguruko beste errealitate sozialekin zeuzkaten harremanak behatzeko, halaber, horrek ematen digu gizartearen izaera dinamikoaren baieztapena.

Egun, berriz, erronka birgaitzen zaigu, duela oso gutxi arte finkatutako irizpi-deak zaharkituak gelditu dira eta horrek eskatzen digu ahalegin ederra egoera eta gertakari berriak ulertzeko, eta ezin dugu atzean gelditu. Arrantza Antropologia, behintzat bere dimentsio sozialean ezin da geratu eremu finko batean, bere "gizartezko" izaerak gizartearekin batera mugitzera behartzen baitu.

Etengabe aldatzen eta desagertzen ari dira orain arte erabilitako ikerketen objektuak eta sasoi honetatik kultura materiala eta ikerketa multzo gelditzen zaigu baina orain, lehen bezala, arrantzaleen kolektiboengan ematen ari diren aldaketak eta portaerak berorri buruz geneukan ikuspuntu klasikoa kolokan uzten digute.

Arrantza jarduera, garai batean kolektibo eta askotan gizarte oso baten balio kulturala izatetik jarduera ekonomiko hutsa izatera iragotzen ari da eta horren inguruan osatutako ekoizpen eta gizarte harremanak zein unibertso sinbolikoak eta ordenu soziala ez dira aintzat hartzen sektore ekonomiko horren berregituraketa proposatzen denean, alegia ekoizpen/erreproduzio bikoiztasun prozesua eteten ari da.

Egia da gertakari hau leku, prozesu eta erritmo ezberdinetan ematen ari dela, batzuetan azkarrago eta nabarmenago eta bestetan geldoago agertzen zaigu baina izan bada, eta horrek eskatzen digu tresna metodologiko eta prozedura heuristikoko ezberdinak erabiltzen jakitea. Baldin eta onartzen badugu arrantzaleen kolektiboa gizarte modernoarena badela suposatu behar dugu hartatik eragina zuzena jasoko duela eta baita haren eraikuntzan zer esanik badaukala. Gero, noski, errealitateak bestelako eskarmentua emango digu.

Aldaketa prozesua kontuan hartuta, galdera xorta bururatzen zait baina artikularen izaera aintzat hartuta bat baino ez dut egingo: zertan oinarritzen dira

kolektiboaren portaera jakinen ezaugarri objektiboak? Hemen proposatzen dut kolektibo horrek errealitateari buruz duen irudikapenean eta honetan kokatu behar ditugula azpisistema ezberdinen bidez gauzatutako harreman-esparruak, alegia azpisistema sinbolikoa, boterekoa, sozioekonomikoa, teknologikoa, e.a., hots ezagutza-sistema non aldaketek kolektiboaren iraunkortasuna eragiten duten.

Baina bestetik eta planteamenduari buelta emanez portaerak eta ekintzak dira irudikapena sustatzen dutenak. Ikuspuntu marxistatik ekoizpen eta gizarte harremanek bideratzen dute aktoreen portaera eta honetan erabiltzen diren irudikapen ezberdinek zor diote bere izaera ekoizpen moduari.

Globalismo ideologiko barruan garatutako neoliberalismoak eta merkatu ekonomiak bultzatu dituzte Europar Batasuna bezalako gertakariak, guztiengan eragin zuzena izan dutenak, eta hauek gure bizitzetan finkatu dira. Bertan sortzen dira era espezifiko eraturako irudikapen berriak eta hauekin batera portaera ezberdinak, ez hobeak ala txarraoak baizik eta ezberdinak.

Beste muturrean kokatzen dut arrantzale kidego baten errealitatea, bizimodu eta elkarrekintza mota objektibatuari eta normalduari dagokiena eta honi, kolektibo mailan eutsi nahi izan zaion bitartean garapenaren uhinek liluratuta bana-koa maila zeruertzte horretan galtzen den itsasontzian erroldatzen da.

Hori dena islatzeko artikulua honetan euskal kostaldeko herri txiki bateko arrantzale-kidegoaren egoeraz baliatuko naiz, baina errealitatearen beren irudikapenez mediatuta, (alegia metainterpretapenaren bidez) berau baita, nire ustez, bere inguru hurbilean eta arrazoi endogenoz zein exogenoz sortuak diren elkarrekintza mota berriak behatzeko abiapuntua, eta ez hori adieraztekotan baizik eta kolektibo horrek lan jardueratik ondorioztaturiko ustezko trinkotasuna hausten ari delakoan euskarri berriak aurkitzeko beharraren aurrean duen jarra azaltzeko, alegia jarduera adierazgarri berria aplikatuko den espazioa ezagutzeko.

Tesi nagusitzat planteatzen dut, hortaz, egitura sozial baten elementu sinboliko mugikorren zentzua (edo funtzioa) aldatzea nahikoa dela egitura sozialaren egoera aldatzeko.

Hondarribiko arrantzale kolektibo bezalako bati gizarte egoera sozioekonomiko berri batean txertatua izatea suposatzen zaio finkaturiko irudikapenaren markoa egokitu behar izatea, zeinak kontraesanezko portaerak (interpretapen eta zuripen ekintzak) ekarriko dituen, gerora interpretapen berria eraikitzeko (ahal den neurrian babestuz aurreko irudikapeneko, ustezko nortasunaren alderik enblematico edo esanguratsueni eutsiz) sinbologian oinarriturik baina zentzu berriak itsatsirik. Bitartean eta jardueraren alde ekonomikoak planteatzen dituen arazoak dirulaguntza instituzionalizatuaren eta ekimen indibidualaren bidez bideratzen dira, bigarren mailan geldirik, esan dudana bezala, kolektiboaren jardueraren izaera ideologikoa, sinbolikoa, normatiboa, eta ezagutzeakoa.

Artikulua hiru ataletan bereiztua da. Aurrenekoan aurkezten ditut aipaturiko errealitatearen irudikapenari buruzko bi aukera horietan dauden ezaugarriak, eta irudikapena eta portaera bikoiztasunean koka daitezkeen harremanen izaera.

Bigarrenean Europa Batasuna bezalako fenomenoak planteatzen dituen zenbait aukera eta eraginak, zein nolako ezagutza-prozesu ari den indarrean jartzen eta hau errealitatearen beste eredu bat bezala onartuz gero, zein nolako portaeren sustatzaile izango zen.

Hirugarrenean Hondarribiko arrantzaile kidegoaren "ainguramendu" sistema aintzat hartuko dut aurreko bi planteamenduak aplikatzeko, ondorio teoriko batekin bukatzeko.

## **IRUDIKAPEN SOZIALA**

Irudikapen soziala, psikologia sozialaren esparruan sortuta eta garatutako Teoria izan zen eta Moscovici garatutako lanari (1961) beste askok jarraitu zioten, hauen artean hiru ildo nagusi bereiz ditzakegu: Irudikapen sozialaren ezaugarriak eta jarduera sozialen arteko harremanak ikasi zituen, hemen Abric (1987) aipa dezakegu. Bigarrenez, elkarrekintza sozialen esparruetan irudikapenaren eginbehar erregulatzaileren eragina landu zuena, Jodelet (1989). Eta azkenik egitura sozial batek errealitatearen irudikapenean duen eraginaz jardun zuen lanen egilea, hemen Doise (1990) aurkitzen dugu.

Joera ezberdin hauetan agertzen da, Abricek dioen bezala:

*la question des relations entre pratiques et représentation sociales: sont ces les pratiques sociales qui déterminent les représentations ou l'inverse?<sup>1</sup>*

Ez naiz sartuko eztabaida honetan, hemen interesa zaidana da azpimarratzea irudikapena eta jarduera soziala lotuta daudela, irudikapenak baduela izaera egituratzaile/egituratua bikoitza, eta dimentsio honek badu eragin zuzena eraikuntza kulturalan.

Irudikapen Sozialaren Teorian finkatzen da irudikapena bera, irudikatzen duen errealitatearen alde bat dela; errealitatea existitzen da irudika dezakegun neurrian. Hau da, hausten dela objektua/subjektua bikoiztasun kontzeptuala, hauetako bakoitzak bestean, identitate-erreferentzia duen heinean elkarrekin lotuta daude eta objektua zein subjektua errealitatearen beraren gertakaritzat hartuak dira. Objektu/subjektuen arteko harremanak finkatzen ditu objektuaren izaera eta subjektuaren presentzia.

Bide honek bidaltzen gaitu erlatibismorantz, arlo honetan errealitate objektiboa eta absolutua existitzen ez delakoari eusten zaion heinean, eta egia esan

---

1. Abric, J. Claude (1994:217)

neurri batean berreskuratu beharko genuke joera hori. Honek zilegituko liezaguke irudikapena munduaren alde instrumentala eta eskuragarritzat behatzea, bere alde egituratzailea azpimarratuz eta aurrean dugun “errealitatea” berariazko erreferentzia-sistema egituratua bezala aztertzea.

Irudikapen Soziala tresna baliagarria da nortasun esparrua finkatzeko, bai besteekiko propioa dena zein besteek ezarritakoa onesteko. Kontuan hartu behar dugu gertakari sozial baten irudikapena sortzen dela gertakari horri buruzko informazioa prozesatzeko beharretik, gertakari hori “erreal” edo sinbolikoa izanik. Kasu honetan irudikapen hori egina izango da dagoeneko finkatuta dauden elkarrekintza sozialetatik, balore-sistema baten arabera eta inguruko errealitatearen hautemate jakin baten arabera, saiatuz beti ere irizpide iraunkorra finkatzen. Baina egoera berri honek, dudarik gabe, eragingo ditu harrez gero sortuko diren bestelako gertakari eta elkarrekintzak, horrela ixten da zirkulua.

Dena dela, edozein izanik prozesua aktorea bera inplikaturik dago eta irudikapen bat edo beste objektibatuta dauden ezker aktorearen nortasuna irudikapen horretan kokatua dago, alegia “errealitatean” kokatutako aktoreak sartuko ditu irudikapenean balore sistema, historian oinarritutako oroimen kolektiboa eta irudikapena ainguratzeko behar besteko atributu oro, bere izaera eta portara objektibatuko dituzten baliabideak alegia.

Irudikapenak, beraz, ziurtasunaren unibertsoan sartzea suposatzen du; irudikapenean garatutako objektibotasuna da gizarte harremanen ereduari irmotasuna ematen diona, baina honek ez digu ahantzarazi behar irudikapena asmakuntza pragmatikoa dela, asmakuntza naturalizatua eta instituzionalizatua burutu nahi den gizarte ereduaren arabera, zergatik? Bada kultura bakoitzak bere errealitate operatiboa behar duelako eta errealitatea espazio sozialean txertatuta dagoen heinean ondorioztatzen zaion ezagutza-maila kolektiboa delako, arau-sistemaren hastapenak, nolabait, non informazioa/ezagutza hedatzeko baliabideak esku gutxi batzuetan dagoen.

Hala ere gizarte-bizitzaren iraunkortasunak eskatzen du Sistemaren aldaketak izan daitezen, hauek sortzen baitira garai eta espazio ezberdinen arteko elkarrekintzetan jasotzen diren mota askotako eraginetatik. Aldaketa-egoera horretan ezagutzaren helarazpenak eskatzen du kode berdinen erabilpena izatea baina horrek ez du esan nahi kode horiei adiera berdina itsasten zaienik, hemen ez dugu aparte utzi behar sinbolismo eta bere esanahien arteko malgutasuna, eta hau ez da kontraesankorra, baldin eta axola zaiguna egoera baten iraunkortasuna bada egoera hori ainguratzeko erabiltzen diren baliabide sinbolikoak, itxura berdinekoak izanik esanahi ezberdinez hornituta egon daitezke. Gertakari berari buruzko informazioak eduki ditzakeelako adierazpen ezberdinak nahiz eta kode berdinek erabili.

Gertatzen dena da trantsizio egoera batean banako baten identitate-erreferentziaren kodeak eta dagokion kolektibitatearenak ez dute zertan bat etorri, eta hori subjektibitate mailan lortutako autonomiari zor zaio, ondorioz sortzen dira banako-nukleoak kulturalki sakabanatuak baina praxi sozialean homogenoak

izaten jarraitzen direnak eta hauek bere banakotasunean osatu ditzakete delako komunitate katalizatzailerak, hau da, aldaketa soziala eragiteko bere presentzia nahikoa duten horiek, hasieran, errealtate sozialean oharkabeko izanik. Baina normalean banako jokabideari zor zaizkion aldaketak ez dira ontzat hartuta banako hori dagokion kolektiboan, areago, banakoak berak ez ditu onartzen kolektiboarekiko elkarrekintzan dagoenean, hemen eta elkarrekin elkarrekintza sinbolikoa burutuz. Eta gertakari sozialen aurre ikusezintasunaren aurrean, banakoak bere autonomia defendatzerakoan osatzen da kolektibo berri bat, baina Gurrutxagak<sup>2</sup> adierazten duen arabera, ez ote ...?:

La defensa de la comunidad se erigiria sobre el mito de la solidaridad grupal, cuando ésta es más producto del miedo, la inseguridad y del temor a lo desconocido que de las relaciones sociales.

Hortaz, irudikapen soziala kolektibo oso bati dagokion ezagutza-sistema erreproduzitzeko baliabidea da, baldin eta irudikapena garatzen den kolektiboaren sistema ekoizleak zutik jarraitzen badu. Horretan agertzen da sistemaren balioa, irudikapenaren bidez ekintzarako gaitasuna nolabait, zeinak kolektiboetan burutzen den portaera sozialaren zenbait arlotan zer ikusi zuzena daukan eta testuinguru honetako esparruetan esan behar dut Europar Batasunetik jasotako mezua irudikapena ahula eta errotu gabekoa dela. Alde honetatik irudikapenak praxi sozialean duen eragina baliogabetua gelditzen da.

Europar Batasunaren mezuen artean garbiena iristen dena da fenomenoaren saihestezintasuna, honek esan nahi du aktore kolektiboak ez duela inolako aukerarik jasotako berriak berriazko irudikapen sistemari egokitzeko, datorrena datorrela egitura osatukoa da eta hauskorra dena propioa dela. Egoera horretan gailentzen da banako-aktorearen portaera, Ibanesek dioenez:

Il n'est pas étonnant)...que un sujet qui se trouve amené à développer une pratique sur le long terme soit lentement modelé au niveau de ses croyances, par les valeurs qui saturent le milieu où il exerce cette pratique...<sup>3</sup>.

eta portaera pragmatiko horren bidez kolektiboaren balore-sistema, sinismenak eta baita egitura kulturala ere kolokan kokatzen badira saiatuko da ahal den neurrian eusten, sinbolikoki behintzat, bere portaera zuzendu duen ereduari, nahiz eta horretarako zegoen irudikapenaren interpretapena indibidualki egokitu behar duen. Egoera honek ez du ukatzen finkatutako sistemaren bestelako defentsa ekimenak, batez ere kolektibo mailan, baina hemen ere kontziente dira egoera berriaren saihestezintasunaz eta kontrako ekimenak esparru sinbolikoan ematen dira gehienbat, bitartean arrazionalizatzen eta zurrizten dira portaera indibidual horiek, gero eta usuagoak direnak kolektiboan bertan.

---

2. Gurrutxaga, in REIS (64/211)

3. Ibanes. T: (1989:39) in: Abric, J. C.: Ibidem: 235

Portaera pribatu hau testuinguru kolektiboan onargarri bada saiatzen da kolektiboaren balore sistemaren barruan baimendua izaten baina horretarako kolektiboan zilegitua ez denak behintzat asimilagarria izan behar du.

Alde horretatik agerian gelditzen da ekoizpen baldintza berriek ahalbidetzen dituztela portaera era berriak eta banakoaren jokamoldeak gauzatzen dituela errealitatearekiko harreman eta ikuspuntu berriak. Banako mailan hartzen diren erabakiak zuritzen dituzte irudikapen berriaren interpretapenak, hauek kolektiboaren esparru normatiboarekin bat ez ba datoz ere.

Hemen egoera berriaren instituzionalizazioak ezartzen du bere balio eta indarra kolektiboaren irudikapen sistemaren gain. Botere faktikoaren esparru eragin-korra lekuz aldatzen da, beste espazio bat sortaraziz eta sinbolikoki banako hori kolektiboari badagokio ere arlo pragmatikoan beste esparru orokorrago bati darraio eta hemendik sortzen da irudikapenaren ikuspuntu berria eta baita gatazka sozialaren hastapena ere.

Kolektibo honetan egoera berriarekin topatzen naiz, ekoizpen baldintzak (eta lan banaketak) markatzen dute elkarrekintza sozialen areriotasuna, errealitate irudikapenak, berriz, izaera kooperatiboa itsasten dio kolektiboari, eta irudikapen horrek eragiten ditu azalean gelditzen diren portaerak, sinbolikoki indartuak gainera. Bitartean testuinguru sozialean emandako praxia bestelako izaeraz mintzatzen zaigu eta irudikapenak gizarte elkarrekintzetan duen eragina ikusita espero liteke arrantzalea izatea prestigioz jantzitako jarduera izan zitekeela eta ondorioz bere iraupen arloan ez litzatekeela inolako arazorik agertuko, baina ez da hori gertatu. Ematen du, berriz, kolektibo horren zenbait banakok baliatu dela gertakari berriaz bere egoera partikularra bideratzeko, bai kolektiboaren instituzioak arazo berriei ezin dietelako erantzun egokia eman, bai arrantzan baino jarduten nahi ez duelako. Edozein kasutan eta galdegindako arrantzaleak egoera berria onartzen dute etsipenean eroriak, azalean utziz lan jarduera honetan azpian dagoen areriotasun kutsua.

## **NORTASUN EUOPARRA ETA ESPARRU SOZIALAREN IRUDIKAPENA**

Europa, historia bereko kultura aniztasun elkarketa da, baina zenbait forotan indarrean dagoen iritzi hegemonikoa alderantzizkoa da, alegia kultura berari dagozkion historia ezberdineko kolektiboz osatuta dagoela. Kontzeptu-ezberdintasun hori erretorikoa baino zerbait gehiago da, bigarrenean adierazi nahi izan baita Europa osatzen duten herriok partekatzen dugula kultura bakarra esparru geografiko batean kokatua izateagatik soilik. Jakin beharko genituzke Europaz, kulturaz eta baita Europan egoteaz ere zer ulertzen den jarrera bakoitzean baina edozein kasutan nortasun bakarreko kolektibo europarra, izatekotan, partekatu historia horretan datza, botere-jokoaren historia dena bestetik.

Partekatutako historia horretan eman dira etengabeko gerrate, iraultzak, inposaketak, bortxak eta konkistak, XX. mendera arte iraun dena eta azkenik “bake” unea iritsi da interes ekonomikoaren eskutik. Historia horretan Erdi Aro-

an Erljioaz, Errenazimenduan Arteaz, Ilustrazioan Humanismoaz, Aro Modernoan Industrializazioaz eta Posmodernismoan Merkatu ekonomiaz jantzita dago, Europak garaiz-garaian ezagutu duen mota ezberdinetako batasunen “zioak” ziren horiek denak eta ia guzti hauetatik sortu dira gerrate eta liskar sozialak, eta hau ere historia europarraren beste interpretapen bat da.

Halako markoan nortasun europar amankomunaz hitz egiteak suposatzen du EBarekiko leialtasuna lortzearren egina dagoela eta hau lortzeko biderik sendoena beste *ismo* bat eratzea dela.

Historiaren gertakariak dira maiz nortasuna irudikatzeko erabilitako baliabidea eta Europaren kasuan ere hala jokatu da, Europako historia horretatik erazuten diren osagaiekin osatu nahi da europarren nortasun amankomunaren irudia, horrela berariazko baloretzat hartzen dira kristautasuna, hiritartasuna, demokrazia eta ekonomian erakutsitako azkartasuna, hauek denak segurtasun kutsua lortzera bideratuta eta beti ere balore iraunkorretan oinarrituta.

Nortasuna fenomeno psikosoziala da “*de naturaleza socio-representacional*” Apodakak<sup>4</sup> gogoratzen digun bezala baina hau normala ematen den fenomeno hori gizarte posmodernoa arazo bihurtzen da eta nortasuna banako zein kolektiboarena, harremanen elkarmenpeketasunaren emaitza da, elkarrekintza normalduaren irudikapenaren ondorioa:

La baja modernidad es tiempo de identidades (...) de la posibilidad de ser de muchas maneras (...) se presenta así un sujeto que no está atado a una identidad sino que consume identidades<sup>5</sup>.

Euskal nortasunaren finkapenean eta irudikapenean “etxeak” izan duen garrantzia ukatu ezinean aintzat hartu behar dugu nortasuna eta “txokoa”ren arteko esteka, ez da atributu eksklusiboa izango baina bere konfigurapenean egokitua zen eta egokitzen zuen errealtateari buruzko irizpidea. Honekin esan nahi dut badela lurraldearekiko atxikimendua nortasunaren irudikapenean eta seguruenik hemen eta inon gauza bera gertatzen dela, lurraldeak, bere alde geofisikoak eta honekin lotuta dauden jarduera ekonomikoak zein harreman sozialak lotuta daude inguru horretan garatutako identitate aldeekin.

Ba omen dugu EBean identitate formal bat eraikitzeko espazio juridikoa baina ez bere euskarririk, horretarako espektro zabaleko kolektiboarekiko izaerakontzientzia eduki behar baita. EBak lortu du nolabaiteko batasun politikoa baina honek ez du bermatzen inolako batasun identitariorik. Bestetik historia eta oroimen kolektiboa ustezko identitate amankomunaren oinarritzat hartzeak suposatuko luke zauri orbanduen pitzadura.

---

4. Apodaka, E: Doktoretza Tesian 1999. urtean defenditua argitaratu gabe (:113)

5. Ibidem (:296)



Esan berri dut nortasun printzipioek nor bere buruarekiko kontzientzia maila edukitzea eskatzen dutela baita irudikario kolektiboa partekatzea ere, alegia kultura jarduerak eman ohi dituenak eta pentsa daiteke hauen ezean ez dutela existitzerik, ez komunitate sozialak ezta politikoak ere. Zer da bada nortasun europarraren bilaketa –europe-ismo kontzientea deritzona– honen atzean? Posible diren erantzun guztietatik nik eredu ekonomikoaren zilegitasuna bilatzen dela diot. *Totum revolutum* batean zorro berean sartzen dira EBaren identitatea eta europar identitatea, nolabait Le Goffek salatutako eurozentrismoa oraindik ere zutik dagoela badirudi<sup>6</sup>.

Ez gara, ez dugu nortasun identitario europarra Europakoak garelako baizik eta EBan sartuta dauden Estatu bati gagozkiolako, beraz, identitate hori ez da sortzen eskubide zibil bezala, inposaketa politiko bezala baizik.

Europar identitateak, azken finean, eta ikusita horri buruz dagoen literatura eta diskurtso oparo, bere baitan du jomuga, ikusi baita honen ezean proiektu europarrak ez lukeela behar duen bultzada sozialik izango. Hitz bitan, edozein ekingiza asimilatuta gelditi daiteke aktore eta objektuaren arteko harremanak afektibo edota emoziozko hurbiltasunaz mediatuta badira, eta egun Europar Batasunak ez du eskaintzen lotura afektiborik, batez ere Erakundearen funtzioa eta zioa kultura mailan eta gizarte zibilean oinarrituak ez direlako<sup>7</sup>.

Europatik europar nortasunari buruzko mezu eta irudikapen garbirik iristen ez badira ez direlako da, haatik lekuko mailan bertako eliteak hura hartzen du aitzakiatzat bertan jazotzen diren gertakariei zentzua emateko, eta ekiten dizkieten proiektuak zurrizteko, horrela lekuko esparrutik EBA aitzakia bihurtzen da, garapenean (iraunkorra, noski) guztiahalduna, demokratikoa, askatasunen bermatzailea, geldiezina eta ezinbesteko prozesuaren irudia zabalduz, hau da, lekutik irudikatzen da Europa Batasunaren fenomenoak lekuan bertan ekiten dieten ekimenak zurrizteko, EBetik nolako irudia egiten asmatzen ez den bitartean.

Europar Batasuna zentzuzkoa da Globalismoaren ideologian sartuta, hementik ondorioztatu arazo berriak, globalizatuta dauden neurrian, ez dute irtenbiderik Estatu bakar batetik egin daitezkeen ahaleginen bidez. Merkatuaren mundualizazioak ezartzen du bere dinamika gizarte zibilaren gainean, horrela jarduera ekonomikoak, islatuta zenbait erakundetan –G7, (Munduko Estaturik Aberatsen Biltzarra) BM, (Munduko Bankoa) FMI, (Nazioarteko Moneta Fondoa)

---

6. Le Goff: (1994) *La vieille Europe et la nôtre*.

7. Gizarte sistemak lortzen duen ordenu sozialak oso ahula eta behin behinekoa da. Batetik, ordenu soziala bermatuta badago jarrera kritikoa orokortuaren ezean oinarrituta dagoelako da. –oinarrituta hain zuzen indibidualismotik ondorioztatu sakabanatzearen sustapenean,– bestetik eta komunitate-printzipio sozialak suntsituta direla eta, sistemak benetako arazoak ditu lortzeko izaera ekonomikoko proposamen komunitarioekiko atxikimendu afektibo-identitarioak, bai maila europarrean, metropolikoan zein mugazgainekoan. Ordenu soziala kolokan jar dezakeena. Orduan eta egoera hori gainditzeko kontu handiz erabili behar du komunitate tradizionalen errotuta dauden osagai sinbolikoen alde estetikoak, banakoa erakartzeko gai dena; hau da, tradiziozko identitate kolektiboaren sinboloen ustezko defentsa bezala agertzen dena da lekuko nortasunaren zenbait elementu sinboliko eta proposamen berrien arteko harreman arbitrarioa erabiltzea beharrezko harremana balitz bezala.

OMC, (Munduko Merkataritza Erakundea) eta bestelako *lobbyetan*, aurkitzen du eremu sozial menpeko eta izutuarengan bere dinamika neoliberala garatzeko lur ongarrirua. M. Castellsengan<sup>8</sup> aurki dezakegu egoeraren adierazpen garbia:

(...) la cultura unificadora del mundo de los medios de comunicación de masas, y la comunicación global en torno a un sistema de valores dominado por Occidente, (...), entraba cada vez más en contradicción con la autoafirmación de las identidades culturales de diversos orígenes: religiosos, étnicos, territoriales, nacionales, de género, así como con las identidades autodefinidas. La identidad constituye la fuente de significado para las personas.

Eraiki nahi den nortasun europarrak hartu duen sinboloen artean hiritartasunarena da. Ustezko batasun edo integrazio prozesuan hiritarren izaera urbana nabaria da eta era berean denok partekatzen dugun errealitatearen ezinbesteko aldea, baina errealitateaz mintzatzean ez ote dugu aipatu behar horren irudikapenik?

EBan aurkezten den hiritartasuna banako-eskubide zibilean datza, komunitate politiko bakarraren partaide gisa eta egoera hori instituzionalizatu beharrean egonik Europako Itun Orokorra, Europako *Konstituziotzat* hartuta dena erredaktatzea, onartzea eta plazaratzea biderik laburrena zela ikusi zen. Espainia Estatuan halako galdeketak kontsultazko izaera zeukan, ez loteslea, eta 2005eko otsailaren 20an kontsultatu egin zuten. Orokorrean %57ren abstentzioarekin eta gainontzekoaren %76a baiezkoa emana ontzat eta onartu egin zen. Baina hori aski jakina da.

*Konstituzio* horren garaian EBak, makineria burokratiko eskergaren planta dauka, lekuko egoera kulturaletik urrun dagoena eta hala ere beharrezkoa du maila honetan dagoen populazio motibatu gabearen lankidetzat, batez ere bere egitura eta burua zurrizteko. Nabarmena da bitartean, bi polo horien arteko desfasea baina EBak badu nahiko baliabide eta Instituzio hori eta lekukoen arteko harremanak "sendotzen" ari dira diskurtso eskuragarri eta errazaren bidez, eta batez ere diru-laguntza iturriari esker.

Hemen sartzen dira jokoan lurralde endekatuak birgaitzeko Egiturazko Funtsak.

Estatu espainolak 2000-2006 urteen denboraldian 56.000.000.000 €, jaso zuen kontzeptu horretaz, testuinguru honetan Nafarroa eta Euskadi 2. Jomugako herrialdeztat joak funtsa hauei etekina atera zieten eta 2006. urtera arte Euskadik jaso zuen 1.316.000.000 € Europa Batasunaren Egiturazko Funtsetatik eta beste ekimen ezberdinetatik.

Eurohiria (Txingudi) Europar Batasunaren eraikuntzaren lekuko adierazpen metropolitanoa da, European ditu kokatuak erreferente guztiak eta honen erai-

---

8. Castells, M: *La crisis de la sociedad de la red global, 2001 y despues*, Universitat Oberta de Catalunya, artikulua in: [www.cidob.org.castellano/publicaciones/Anuarios/01castells.cfm](http://www.cidob.org.castellano/publicaciones/Anuarios/01castells.cfm)

kuntzaren ereduak bereganatzen dituzte baina bestetik Euskal Erakunde Publikoek ez dute inolako eraginik EBean (Erregioen Komitea ez da batere operatiboa, kontsultiboa da eta ez da zilegitua erabakiak hartzeko) Orduan zer da guria Europari interesa lekioketena? Burdina? Arrantza? Esnea? Untziteria? Kotxeak? Paisaia? Untzigintza? Labe garaiak akaso...? nire ustez espazio honen kokapena da Europa proiektuaren sustatzaileei interesa zaiena eta Eurohiria da dinamika horretan lekuko botereak eraiki behar duen metropolia, Europar Batasunetik egindako planteamendu ekonomikoan aintzat hartuta izateko behar duten hiri-eredua, bestela Herbeheretik Mediterraneo alderaino, orain indarrean dagoen joera ekonomikoaren azpian geldituko omen zen eremu hau.

Indartu behar dute, beraz, "Arku Atlantikoa" delakoa Europa mailan lehia-kortasunez jokatzeko, horretarako metropoli "birtualak" eraiki behar badira ere, edo horretarako identitatea osatzen eta eraikitzen duten elkarrekintzak eta lurraldearekiko atxikimenduaren baloreak, erritmoak, dinamikak eta abar ordezkatu behar badituzte ere, ez omen dute problemarik ikusten.

Halako proiektuaren atoian globalizazioaren ezaugarriak badatoz, horrela informazioa, garraioa, teknologia eta prestakuntza teknikoa dira neoliberalismoaren eskakizun berrien jomugak eta baldintza horietan sartu nahi duenak eskatuta adinako egitura prestuak izan behar ditu esparru horietan, hori da globalizazioaren ezinbestekotasuna eta saihestezintasuna, ekonomiaren ereduaren diseinua ez baita jada bertatik egiten eta hiriak eta lurraldeak besteen elkarretaren beharrean daude lehiakorrak izateko.

Bonet i Martiren hitzetan<sup>9</sup>:

La nueva economía global es el resultado de la desterritorialización de los flujos económicos (...) en este contexto los territorios se vuelven centrales tanto por su disposición (...) como por su capacidad de conectarse con la red de redes de la economía global.

Eta testuinguru orokor horretan kokatzen da buru-belarri orain arteraino baxurako kolektibo arrantzale izan zen hau.

## **HONDARRIBIA, ARRANTZALEEN IRUDIKAPEN SISTEMEN KONTRAESANAK**

Ibilbide motz honetan ikusi dugu Europar Batasunaren irudikapenaren zenbait elementu baina, zein elementu erabiltzen dira Hondarribiko kolektibo horretan errealitatea ulergarri izateko?

---

9. Jordi Bonet i Martí: "Barcelona La reinención de la ciudad portuaria en la nueva economía global". En: *Archipiélago, Cuadernos de crítica de la cultura*, nº 62, pp. 63-69. © Jordi Bonet. Se permite la copia, reproducción literal y redistribución de este texto en su totalidad y por cualquier medio siempre y cuando sea sin ánimo comercial y esta nota se preserve.

EBa posible bada lekuko errealitate ezberdinek egitura kultural bakarra osatzen dutelako omen da, hau da, hain zuzen, diskurtso instituzionalizatuak zabal-tzen duen mezua eta bertan topatzen dira bi errealitate, lekukoa bata eta “glo-bala” bestea. Horrek zilegitzen du lekuan bertan ematen diren ezaugarri dife-rentziatuak sustatzea, alegia lekuko nortasun-adierazpen sinbolikoak gorai-patzen diren neurrian Europaren balore-komunitatea zerbait propiotzat fin-katzen omen delako da. Egoera honek noski, bere salneurria dauka baina hori ere garapen eta legezko europarra izateko zergatza hartuta da.

Eraikitako harreman baldintzatu hori egoera sozioekonomikoaren irudikapena-ren egokitu interpretapena da. Bi elementu edo egoerak espazio berria partekatzea ahalbidetzen duena, horrela alboratzen da kulturaren alde sortzaile, ekoizpen eta gizarte harremanetatik sortua, jarduera sinboliko hutsaren mesedetan.

Ukatzen da, bada, aktore kolektiboaren gaitasuna, arrantzale kolektiboa aukera bateko bi bideren aurrean kokatuz: kolektiboaren bizimodu tradizionala desagerraraziko lukeen merkatu-dinamika ekoizlean sartzea ala baxurako arrantza jardueran jarraituz eta bizimodu tradizionalari eutsiz Europako esparru ekonomikotik kolektiboa desagertzea, batena eta besteena ondorio berakoa izan-rik hartutako bidea hibridoa izan da, egia da ez dela oraindik orokortu baina hasi dira han eta hemen aukera honen adibideak. Banako mailan onartzen hasi dira erronka ekonomiko berriaren baldintzak, kolektibo mailan banako beraiek, sinbolikoki, “betiko” bizimoduari eutsiz, horrela elkarrekintza sozialak “sendo-tzen” dira beren balio sinbolikoan banako jokamoldea normatiboa den elkarre-kintzatik aldentzen den heinean.

Berger & Luckmanek garatutako zentzuan<sup>10</sup> arrantza jarduerari itsatsitako kolektiboak benetako estatusunean ikusten du bere burua bere unibertso sin-bolikoa erreproduzitzeko beharrezkoak dituen baldintza objektibizatuak bermat-zeko unean, Hau da, egun egiazta daiteke Hondarribian “bizi” eta egon daiteke-ela arrantzale izan gabe, areago, izan daiteke bertako arrantzalea bertakoa izan gabe, baita sinbolo unibertso horretan partaide izan gabe ere, beraz kalitate bikoaren arteko lotura ez da jada kulturaliki beharrezkoa ekoizpen erei itsatsita-ko nortasuna definitzeko eta horrek eragiten du halako krisi identitarioa eta pres-tigio-mailaren galera.

Egia esan, ikuspuntu klasikoan arrantzaleak partekatzen bazuen ere ez zego-kion lehorreko espazioari, bere barneko elkarrekintzak ekoizpen indarren arabe-ra antolatuak ziren eta ondorioz nortasun etnikoa sinbolikoki atxikituta zegoen ekoizpen espazioan, baina egungo errealitatean kolektibo gisak, itsasoa, sal-

---

10. Errealitatearen irudikapena ez da, ezin da izan berdina une historiko orotan, eraikuntza sozialak “mundu objektibo” bezala osatzen direnean bakarrik ahal dute erreproduzitu. Egile hauek diote gizarte-kontrola sortzen dela gertakarien aurrean osatzen den ohituratik ondorioztatzen den segurtasunean, ohitura horretan dago halaber, instituzionalizazioaren hastapena. Hau, historizitate-an lausotzen denean, kultura baten osagai naturalizat hartzen denean, orduan objektibizatzen da. Hala ere objektibazio horrek hartzen du benetako zentzua bere edukieraren helarazpenean eta hau da, hain zuzen, zenbait interpretapenekin bateraezina dena.

gaiak garraiatzeko, turismo, ekoizpen industrializatua eta aisialdirako gunea prestatzen ari den errealitatearen ondorioak pairatzen du eta miatuko bagenu kolektibo horren egoeran gertakari horrek suposatzen duena ikusiko genuke azkeneko urteotan zehar bertako nortasuna finkatzeko balio izan duten baliabi-deak berreskuratzeko eta sustatzeko egindako ahaleginak sektoreko krisi ekonomikoaren egoerak eragin duten ondorio bezain handiak izan direla, gainera haiei kutsu jaitsua emateak desbideratu duela sortutako arazoari buruzko arreta, hori arrazoi exogenoek soilik eragina dutelakoan.

Kontuan hartu behar dugu itsasoaren ertzean kokatua izanak baldintzatu badu herri honen ekonomiaren ildoak, hau historian zehar ez dela izan egun bezain espezializatua. Lan banaketa dela eta egungo egoera ez da zenbait egilek Aro Berrian eta euskal itsas ekonomia aztertzean aurkitu duten bezalakoa<sup>11</sup>. Itsasoa izan da jarduera ekonomiko anitzak burutzeko aitzakia, areago, bertako jarduera ekonomikoaren bizigarria non mota askotako eta itsas jarduera anitzak betetzen ziren. Horrela, esan dezakegu egun arrantzaleei buruzko irudia uler daiteke bakarrik baldin eta lan banaketa ikuspuntutik ulertzen badugu.

Eta gaur arrantzaleei buruz indarrean dagoen irudia sustatzeko, askotan historiografian oinarrituta dagoela esanez zentzu anakronikoa erabiltzen da gaurko errealitateari itsasteko garai bateko ustezko egoerak, horrela irudi mitikoa bezain interesatua lortzen da finkatzea.

Itsas gizakia ez zen soilik arrantzalea izan, merkatari, korso, lapurra, soldadu, nekazaria e.a. ere izan dira bere ogibideak, beharko, arrantza urtarokako jarduera izanik. Arrantzalea ez da izan “beti” artisauek arrantza erromantikoa oso osorik murgildurik izan, askoz logikoagoa da pentsatzea zegokion inguru ekonomikoaren arabera mugitu dela eta hemendik atarranturik handiena ateratzea izan dela bere legezko jokoak, dinamika horretan bere inguruko zenbait espezie akitu arteraino iritsi bada ere. Horregatik diot kolektibo horren irudikapena finkatzean une jakin baten interes ekonomikoaren arabera edo interes politikoaren arabera egina dagoela eta honetan zuzen-zuzenean eraginduak direnen irizpideak ez direla aintzat hartuak izan.

Testuinguru honetan egun, elitearen jokabidea bikoitza izan da: baxurako untziteriaren desagertzearen aurrean dirulaguntza mordoa eman dute<sup>12</sup> eredu eko-

---

11. Alberdi Lonbide, X. Egile honek dionari jarraituz euskal itsas ekonomia anitza zela, hau da, itsas gizakiak arrantzaz gain, eta hau urtarokako jarduera izanik, bestelako jardueretan ere jarduten zutela. In: UZTARO 52, 2005; pp. 9-32.

12. Iturria: Hondarribiko Kofradia Batatz bestean eta orokorrean 1999-2006ko denboraldian Euskadiko sektoreak 60.000 miloi pza jaso zuen, (EBeko Egiturazko Funtzak eta pribatuak) horrek suposatu zuen 2001. urtean. Hondarribiko untziterian ziren 27 “karrerako” eta 14 “legatzeako” ontzietatik, egungo 27ak gelditu direla, legatzeakoak ia ia desagertu arte, hori bai, batzuk puntako teknologiaz horniturik, “txapazkoak” izanik eta alturako arrantzarako prestatuak gelditu dira. Horren arabera murriztu zen tostarteko kopurua ere, 2001. urtean arrantza jardueran 322 marinel baziren, zeinetatik 13 “kanpokoak” ziren, egun, berriz, 290 marinel badira eta hauetako 21, gehien bat Senegalekoak. Ikusten denez arrantza mota jakin baten unitate txikiak desagertzen dira eta honekin batera teknologia kulturalaren esparru oso bat ere bai. Datu hauek, hala ere, arreta handiz erabili behar dira, kolektiboaren mugikortasuna kontuan hartuta urtez-urtean aldatzen baitira.

nomiko berriak ezartzen dituen baldintzen arabera ildoak sustatzen du eta gaur lekuko “abantaila konpetitiboak” hartuta direnak bultzatuz dirutzaz “lagundu” duen jarduera ekonomikoa murrizten da, alegia sektorea kapitalizatzen ari da beste ikuspegi ginetik.

Horrek denak islatu nahi du baxurako jardueraren desagertzearen egoera, sinbologiaz betetako elementuak desagertzen diren bezala (elkarrekintza espazioak, lehiakortasun endogenoa, abileziak, e.a) eta egoera berriak eskatzen du irudikapen era berriak, Olivier de Sardant-ek dioen bezala (1995:7) irudikapenean saiatzen da ezartzen “*la configuration développementiste*” baina egile honen iritzia aldea pentsatzen dut horrek ez duela definitzen “*l’existence même du développement*”. Kasu honetan garapenearen dinamikak eragin baitu irudikapen era berriak.

Izan ere “iritzi adituena” agintea zuzitzen da garapen sozialaren kontrolaren bidez, tradizioa, kultura, baloreak, ohiturak e.a dira erabilitakoak garapenerako dinamikak zuzitzeko eta baita egitasmo horren aurka aurkezten diren beste aukerak gaitzesteko ere.

Hiriko esparruan garapen horren irudiak bi adar izan ditu: alde batetik hiria morfologia urbanistikoa eta honen inguruan garatutako egitura berrietan. Espazio eta erabilerean antolamendua bisitarien arabera prestatua izan da, bizilekuen prezioak, espazioen definizioa eta zerbitzu publikoen eskasiak mintzatzen zaizkigu hiri honen benetako erabiltzaileez. Hiri bera, eta Jordi Borjak dioenez, “lausotzen da”<sup>13</sup>.

Bestetik, bertako arrantza jarduera konkretatzen da zenbait elementutan, Europako arautegi berria, arrantzarako era berrietan eta ekoizpenaren zenbaitasunean, hauen guztien atzean teknologiaren erresumaz hitz egin daiteke. Ekoizpen baliabideen teknifikazioa, “sektorearen kapitalizazioa” delakoa lortu nahian, gunearen industrializazioa bideratuta dago, alegia sektorearen proletarizazioa eta bertan ez dute inolako garrantzirik oinordetzan hartutako ezagutza-egiturak, arteak eta jakintza tradizionalak eta egia da teknologiak lanerako baldintza hobea eskuratzea suposatzen duela eta halaber artisauek eta baxurako arrantzari buruzko ikuspuntua aldatzera behartu gaituela. Teknologia bera sartu beharko genuke irudikapen jakin bat burutzeko erabiltzen diren baliabideen artean, teknologia kode bihurtzen da garapenearen sinboloa balitz bezala erabiltzen denean, eta kode hau ez zaie gehitu daudenei, ordezkatu baizik, alde pragmatikoan balio gabetu utzi dituzten indarrean zeudenak.

Kolektibo batean, Europar Batasunaren eredu onartua izateko “arrotzak” diren mezuak kode ezagunen bidez egokituak izan behar dira, eskuragarriak, eta ahal bada ordurako asimilatuta dauden ainguramendu-baliabidez. Fenomeno

---

13. Jordi Borjaren arabera “... una ciudad es difusa cuando pierde su sentido de identidad y entonces se convierte en un espacio de tensiones”. En: *Ciudad y ciudadanía: Dos notas*. Donostia: Cursos de Verano, 2000.

berri horren objektibotasunaz,<sup>14</sup> horrekin ados dagoen elitea arduratuko da, arazoa zer den eta noiz eta nola aplikatu behar konponbide hau edo beste berak markatuko baititu, eta baita non datzan iraunkortasuna mehatxatu dezakeen proposamenak ere finkatuko.

Eta kode horiek dira hiriaren “abantaila konpetitiboak”en artean aintzat hartuta, esan nahi dut, arrantza jada ez dela izaten herri honi izena eta izana ematen dizkion jarduera, ez da jada elkarrekintza eta aktoreen portaera zuzentzen dituen ekoizpen indarra, hori hirugarren sektorean gara daitezkeen jarduera berrietan kokatu da, zerbitzu eta turismoan alegia eta halaz ere arrantzaleen irudi mitikoa eta “exotikoa” da horiek sustatzeko erabiltzen diren baliabideetako bat.

Lekuko berregituraketa urbanistikoak, espazio sozialaren berrantolaketak eta sailkapen berriak, eredu ekonomikoaren txertaketak, indibidualizazio prozesuak, teknifikazioak, elkarrekintza-egituraren suntsipenak, denek jotzen omen dute *zentzu-komunitate*-aren aurka eta haatik kolektiboan agertzen da sekulan baino gehiago bere ezaugarri identitarioei eusteko gogoia, hala ematen du, baina ez da zuzena.

Ondare kultural ezberdinak metatzeko eta mugiarazteko ahalmena daukateenek indarrean jarri dute izaera sinbolikoko ekimen anitzak, orokorrean hondarribitarra eta zehazki arrantzalea izatea zer den plazaratuta izan dadin, “oroimen kolektiboa” berreskuratzeko nahian eta izaera horri buruzko harrotasuna berpizteko.

Horrela, kirola, artea, folklorea, historiografia, elizkizunak, jarduera politikoa, “kultura”, ikuskizunak eta abar luze bateko baliabide guztiak mugitu dira jomuga honekin, baina prozesu sozio-sinboliko berri honen ondorio zuzena, eta akaso norbaitentzat jomugatzat agertu dena, marko zehatzaren araberako kontzientzia berreskuratzea izan da eta “betiko” tradizioaren izenean inolako lotsarik gabe abiatu dira krisi soziala eta ekonomikoa estaltzeko nahian, alboan utziz orain arteko bizimodua, elkarrekintza, gizarte eta ekoizpen harremanak elikatu dituen arrantza jarduera<sup>15</sup> Horrela lekuan lekuko zenbait taldek eta jarrera elitistek sinbolo adierazgarri eta erritual ezberdinetan erabilitako ikonografiaz jabetu dira, sinbolikoki eskuratu dute herriko errealitatea, bere ustezko iragan loriatsua, etorkizun ezbaitsua ukatzen duten bitartean.

---

14. Apodaka, E-k aipatua: “Lo qe tiene existencia simbólica porque depende de su actualizacion por parte de los actores sociales se presenta a los mismos como natural” (Ibidem: 35).

15. Pero cuando una comunidad empieza “a ponerse lírica respecto a su belleza prístina y a pegar en las vallas cercanas prolijos manifiestos que llaman a sus miembros a apreciar sus maravillas y que conminan al resto a admirarlas o a callarse, uno puede estar seguro de que la comunidad ha dejado de existir (o de que todavía no existe, que también puede ser” (Bauman, 2003:18). L. Mendezek aipatua. In: *Galicia, región de Europa: dimensiones europeístas del imaginario culturalista de la Xunta*. RAS (12):79-97. 2003. urtean kaleratua.

## AZKEN HITZAK

Europa, ikusi dugunez, saiatzen da eraikitzen kulturaren inguruan erreferente identitariotzat, lekuko kultura mota anitzak eta dagozkien elkarrekintza sistema ordezkatzuz, bitartean lekuko kulturak eta kultur adierazpenak berpizten ari dira marko politiko berrian, jada ez dira nazio-estatueta zilegituak eta errekonozituak, horientzat ere erreferente bakarra eta berria Europa izatea ezarri nahi da eta Europar Batasunarekiko atxikimendua eraiki nahi da “kultura europarren” inguruan, prozesu honetan eta interes ezberdinez erabiltzen dira lekuko nortasunaren eta esentzialismoaren bitxitasunak, hauek, Europako kultur amankomun horretan ezinbesteko ekarpenak suposatzen dituztelakoan.

Bere burua erreferentzia duen talde edo kolektiboa berariazko identitate kolektiboaz ari da eta arestian aipatu dudanez euskal kulturaren nortasunaren oinarria “etxea” du, zentzu metaforiko batean hau izanik lekuko esparrua. Eta eredu europarrak Europa erreferente identitario eraiki nahi duen bitartean lekuan lekuko erreferenteak sortzen ari dira inoiz baino indartsuagoak, baina hainbat kasutan, eta eskutan dugun honetan hala gertatzen da, nortasun horien zenbait alde, batez ere sinbolikoak eta balio politikorik gabekoak, erabiltzen dira Europarekiko atxekimendua lortzeko.

Baina prozesu hau zenbait populaziotan finkatuta izaten lortzen ez den heinean fenomeno berriaren sorburua da, begi bistan da EBak bere handitasunean ez duela lortzen lekuko kulturetatik inolako atxikimendu baldingabeturik edukitzea, horretarako indarrean jarri behar baitziren identitate mekanismo afektiboak. Bitartean bestelako baliabideak erabiltzen dira ondorio berdina lortzearren, hau da, EBaren eraikuntza botere jokoan ondorioa izanik maila honetatik ezartzen dira kulturaren, irakaskuntzan, ekonomian eta ideologian bere etorkizuna bermatzeko gai diren eta politikoki zuzenak diren parametroak, horrela gizarte edo kolektibo aurrerakoi bat izateko irizpide adituaren markoa onartu behar da, beste laidoztatu tradizionalismoan blokeatuta gelditzen zarela ikustarazten dizute.

Europar Batasunaren proiektua bermatzeko eskatzen den salneurria lekuan lekuko kolektibo aunitzen erreproduktzio baldintzak kontrolpean jartzea da, mekanismo hau sistema ekonomikoaren industrializazioaz burutzen da Hondarribiko baxurako kolektibo honetan eta erantzunak bi adar ditu, batetik elite aldetik sustatzen diren ekimen bikoitzak eta bestetik populazio aldetik banako arloan erantzun partikularrak ematen dira, kolokan gelditurik kolektiboarena, arlo sinbolikoan murgildurik dagoena.

Irudikapen sistema berriaren alde ona da bere baliagarritasuna, ez baita normalean alde aurretik bere eragin edo egokitzapenaren eza kuestionatzen, batez ere adiera ezberdinetako kode ezagunak erabiltzen direlako. Beraz, printzipioz onartzen da, are gehiago laguntzen dion diskurtsoa “irizpide adituarena” denean. Baina honetan finkatuko balitz bere eragina mugatua eta motz geldituko litzateke, horregatik irudikapen horretan erabilitako kodeen (edo metaforak) esanahia proposatzen diren jokamoldeetan naturalizatu egin behar dira, elkarrekintzetan objektibatu eta instituzionalizatu sistema normatiboan.



Eta hemen sor daiteke bere eraginik handiena baita bere arriskua ere, eredu berria automatikoki onartzen den neurrian garapenaren proiektuaren eta dagokion kolektiboaren arteko elkarrekintzak kokatzen dira ohiko sistema ekologiko/ekonomikoaren gainean. Baina *makroegiturak* eta *mikrostrategien*<sup>16</sup> arteko oreka ez da automatikoki finkatzen, berariazko erritimoa behar duen prozesua da eta honetan tentsio-uneak sortuko dira etengabe. Egokitzapen prozesuak eta erreakzio jarrerak kolektibo honetan, esaterako, erritualizazioaren inguruan sortutako egoera gatazkatsuan gauzatzen dira non hegemonia sinbolikoa eta botere-jokoaren kapitalizazioa bereganatu nahi diren.

Arrantza Antropologiaren marko akademiko honetan eta erakutsitako ikuspuntutik ikusita begi bistan gelditzen dira inplikaturak dauden alde guztiak, ekonomia -ekoizpen baldintzak-, politika -botere jokoak-, sinbolikoa -irudikapenaren proposamenak-, soziala -ekoizpen harremanak-. Bertan eta aldaketa egoera honetan beharrezkoa da denak eta bakoitza behatzea, egoera hori bere osotasunean ulertzeko, esan nahi dut, Arrantza Antropologiak giza kolektiboa bere ikerketa-esparrutik kanpo inoiz utzi ez duen bezala orain ere jakin behar dugu dagokiguna ez dela arrantzaren marko hertsian mugatutako gertakari bat edo beste, gizarteari, kolektibo oso bati dagokion gertakaria baizik. Alde honetatik jakin nahiko nuke Arrantza Antropologia, Aldaketaren Antropologia Soziala izatera datorren planteamendu konplexuan sartzera behartuta gauden.

Ez gara historiaren emaitza soilik, bera osatzen dituen harremanen ondorioa baizik.

## **BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA**

- ABRIC, Jean Claude. *Pratiques sociales & Représentations*. Paris: PUF, 1994; 251 or.
- AREAS. *Revista de Ciencias Sociales*, nº 19
- ARIÑO, Antonio. "La ciudad ritual". *Anthropos*, 1992; 381 orr.
- BALANDIER, Georges. *El desorden la teoría del caos y las ciencias sociales*. Gedisa, 1994; 237 or.
- BERGER, Peter; LUCKMANN, Thomas. *La construcción social de la realidad*. Amorrortu Editores, 1968 - 2001; 233 or.
- BERGER, Peter y LUCKMANN, Thomas. *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido*. Paidós, 1997; 125 or.
- BERIAIN, Josetxo. "Representaciones colectivas y proyecto de modernidad". *Anthropos*, 1990; 255 or.
- BERINGUIER Christian et al. *Urbanismo y practica política*. Los libros de la frontera, 1974; 159 or.
- COLOM, Francisco. "Razones de identidad". *Anthropos*, 1998; 316 or.

---

16. Olivier de Sardan, J.P. *Ibidem*.

Anduaga, Jaime: Hondarribia, gizarte-irudikapena eta baxurako arrantzan emandako aldaketak

CHECA, Francisco; MOLINA, Pedro. *La función simbólica de los ritos*. Icaria, 1997; 399 or.

Del VALLE, Teresa. *Andamios para una nueva ciudad*. Ediciones Cátedra, 1997; 271. or.

DIAZ CRUZ, Rodrigo. *Archipiélago de rituales teorías antropológicas del ritual*. Anthropos, 1998; 332. or.

DOUGLAS, Mary. *Símbolos naturales*. Alianza Editorial, 1978; 198. or.

DOUGLAS, Mary. *Pureza y peligro. Un análisis de los conceptos de contaminación y tabú*. Siglo XXI, 1991; 217. or.

JODELET Denise. *Les représentations sociales*. Paris : PUF , 1989; 425 or.

OLIVIER DE SARDAN, Jean P. *Anthropologie et développement*. Apad-Karthala. 1995; 218 or.